



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko apirilaren 10a

50. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Erriberako ehun produktiboaren eta Lanbide Heziketako ikasketen nahiz Nafarroako Unibertsitate Publikoko karreren arteko lotura errazteko erabakiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Aragoirekiko eta Errioxarekiko ekimen bateratuak jasoko dituen plan estrategiko bat taxutzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Erriberako langabezia-tasa handia gutxitzeko enplegu plan bat taxutzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Helduen Bigarren Hezkuntzako Nafarroako Institutuko espazio-faltarako konponbideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Erriberaren Espezializazio Adimendunaren Eskualdeko Estrategiaren garapena babesteko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako programen eta finantzaketaren arloan garatzeko Erregelamendua onesten duen maiatzaren 22ko 32/2013 Foru Dekretua aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Erriberako arreta pediatrikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Erriberako Ureztatze Plana eguneratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Erriberako baso-masak espezie autoktonoen bidez kontserbatzeari eta basoberritzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Tuterako Osasun Barrutiaren egoerari eta giza baliabideen arloko beharriaz buruzko diagnostikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Tuterako larrialdietako ohiko zerbitzuko medikuntzako nahiz erizaintzako taldea indartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Batzorde Iraunkorraren osaketa (23. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Erriberako ehun produktiboaren eta Lanbide Heziketako ikasketen nahiz Nafarroako Unibertsitate Publikoko karreraren arteko lotura errazteko erabakiei buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Erriberako ehun produktiboaren eta Lanbide Heziketako ikasketen nahiz Nafarroako Unibertsitate Publikoko karreraren arteko lotura errazteko erabakiei buruzkoa. Galdera 2018ko azaroaren 16ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18-PES/00239 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Zer erabaki hartu ditu Nafarroako Gobernuak Erriberako ehun produktiboaren eta lanbide heziketako ikasketen arteko lotura errazteko?

Beharizanen azterketa bat egiten ari da, bereziki 2017/2020 urteetarako Nafarroako Lanbide Heziketako Plan Estrategikoa idazteko lanen bitartez; plan horretan, eskualdeko hainbat eragile ekonomiko eta sozialek, irakasleek eta herritarrek, oro har, hartu dute parte: mahai teknikoetan eta planaren aurkezpenean jardun dute, hain zuzen ere Tuteran eta San Adrianen egindako ekitaldi publikoetan egin ziren aurkezpenetan, eta haietan ekarpenak jaso zituzten. Nabarmendu beharra dago ekintza horietan ordezkari izan dutela, besteak beste, Erriberako Enpresaburuen Elkarteak, EDER Partzuergoak, Nekazaritzako Elikagaien Klusterrak, hainbat enpresa garrantzitsuak (Congelados de Navarra, Plastic Omnium, SINET,

Transformados Ruiz, Viscofán, Iberfruta-Muerza, Gutarra, SKF, Electrónica Falcón) eta beste erakunde batzuek (UGT, CCOO, UAGN, CPAEN eta ANAPEH eta Tuteran, Azkoien, Fustiñana, Cabanillas, Cintruénigo, Azagra, Cárcar, Lodosa eta San Adriango udalek, besteak beste). Gainera, elkarriketak eta harreman pertsonalak izan dira honako moduko enpresek: Agenor Mantenimientos, Azkoyen, Consebro, Ingeteam, Irumold, SIC Lázaro, Los Tudelanos, eta abar.

Zer baliabide gehigarri, prozedura eta egutegi ezarri ditu Nafarroako Gobernuak funts publikoekin ordaindutako ikastetxe guztietan jatorri soziokultural desberdinetako ikasleek banaketa egoki eta orekatua lortzeko?

Matrikulazioaldiak hiru une desberdin ezarri ditu: matrikula arrunta, matrikula berezia eta ikasturtean zeharko matrikula.

Matrikula arruntaren eta bereziaren aldiatarako zenbait neurri ezarri dira. Esate baterako, ikastetxearekiko hurbiltasuna baloratzea eskolatzeko irizpide gisa; gurasoen kooperatiba izateagatik, antzinako ikasleak izateagatik eta barregatik zenbait itunpeko ikastetxetan ezartzen zen puntuazio gehigarria gutxitzea eta abar. Gainera, aldi arruntean eta berezian gehieneko ratioa mugatu da, ikastetxe guztietan % 10eko tarte utzita ikasturtean zeharko matrikuletarako. Aurre-matrikulazio prozesuari buruzko alde aurreko informazioa igorri zaie haur eskola guztiei eta oinarrizko gizar-te zerbitzu guztiei, familia guztiei informatu ahal izateko hezkuntza-eskaintzari buruz, bai 3-6 urteko haur hezkuntzako zikloan sartu berriak diren ikasleei dagokienez, haur eskolen kasuan, bai eskolatzeko berantiarreko familiei informatu ahal izateko, gizar-te zerbitzuen kasuetan.

Ikasturtean zeharko matrikularen aldirako, azpimarra jarri da ikastetxe-aldaketak ezohikoak izatean, behin ikasturtea hasi denean; are gehia-

go hezkuntza premia bereziak dauden kasuetan, horietan eskolatzeko modalitate-aldaketa bat ezartzen baita.

Hezkuntza-ikuskaritzak eskolatzeko-batzordeen funtzionamendua arautzen du, eta ikasturtean zeharko matrikulako aldiko eskolatzeko irizpideak zehazten ditu. Gainera, eskolatzeari buruzko kasuak ebazten dira aldi horretan.

Zer jarduketa lerro ezarri ditu Nafarroako Gobernuak derrigorrezkoaren ondorengo esparruan Erriberako lanbide heziketako institutuen prestakuntza-eskaintza handitzeko?

Azken hiru urteak kontuan hartuta, eskualdeko lanbide heziketako eskaintzaren handitzea honako ikasketak hauek ezarri bidez gauzatu da:

- Corella: Produktu Grafiko Interaktiborako Laguntzailea erdi mailako zikloa.
- Azkoben: Sistema Mikroinformatikoak erdi mailako zikloa; Nekazaritzako lorezaintza eta lore-konposizioak arloko lanbide heziketa

- San Adrian: Elikagaien Industriak oinarrizko lanbide heziketa

- Tuteran: Nekazaritzako Lorezaintza lanbide-tailerra; Nekazaritzako Lorezaintza eta Lore-konposizioak oinarrizko lanbide heziketa; Arotzeria eta Altzarigintza oinarrizko lanbide heziketa; Metal-Elementuen Fabrikazioa oinarrizko lanbide heziketa; Bulegoko Informatika oinarrizko lanbide heziketa; Ibilgailuen Mantentzea oinarrizko lanbide heziketa; Sistema Mikroinformatikoak eta Sareak erdi mailako zikloa eta Erizaintzako Zainketa Lagungarriak erdi mailako zikloa (eskaintza erdi presentziala); Egokitzapen Fisikoa eta Garraioa eta Logistika goi mailako zikloak.

- Alesbes: Fabrikazio Mekanikoa oinarrizko lanbide heziketa

Iruñean, 2018ko abenduaren 18an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko ele-duna: María Solana Arana

## **Galdera, Aragoirekiko eta Errioxarekiko ekimen bateratuak jasoko dituen plan estrategiko bat taxutzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Aragoirekiko eta Errioxarekiko ekimen bateratuak jasoko dituen plan estrategiko bat taxutzeari buruzkoa. Galdera 2018ko azaroaren 16ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko hainbat galdera egin du. Ondotik dator Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna. Honako hau aipatzen da galderetan: Nafarroako Parlamentuak hainbat erabaki onetsi zuen Nafarroako Erriberaren egoera ekonomikoari, hezkuntzakoari eta sozialari buruz 2017ko

urriaren 6an egindako Osoko Bilkuran. Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu:

.- Nafarroako Gobernuak egin al du plan estrategikorik Aragoirekin eta Errioxarekin batera partekatzen dituzten erronketarako (esaterako nekazaritzako elikagaien arloa) baterako ekimenak bilduko dituenik?" (9-18-/PES-00240). Hauxe da erantzuna:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak ez du inongo plan estrategikorik egin Aragoirekin eta Errioxarekin, baina harreman arina du bi erkidego horietako gobernuarekin nekazaritza-sektorerako gakoak diren gai batzuetan, nola baitira mahastizaintza, baratzezaintza, PACarekiko posizionamendu estrategikoa edo uholdeen kudeaketa bezalako gaiak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Erregelamenduen 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko abenduaren 13an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

## Galdera, Erriberako langabezia-tasa handia gutxitzeko enplegu plan bat taxutzeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Erriberako langabezia-tasa handia gutxitzeko enplegu plan bat taxutzeari buruzkoa. Galdera 2018ko azaroaren 16ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak galdera egin du (9-18/PES-00241) Erriberako langabezia-tasa handia gutxitzeko enplegu plan bat egiteari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako lurraldeetan bizi diren eta langabezia-indize handienak dituzten pertsonen arretari eman beharreko lehentasuna enplegu politika aktiboei buruzko erabakian aurreikusita dago (2017-2020). Erabaki horrek ezartzen du ezen Nafarroako lan-merkatuan lurraldearen arabera ezberdintasun handiak daudela, hainbat gairekin lotuta dauden arazoiei erantzuten dietenak: demografia, produkziarako egitura, garraioa, hezkuntza eta azpiegituren zuzkidura, eta lurraldearen arabera zalantzarik gabeko aldea dagoela langabeziari dagokionez. Horri gehitu behar zaio enplegu politika aktiboen definizioak Nafarroako lurralde-egituraren bereizkuntzari erantzunen diola. Horretarako, proposatzen da lurralde-oreka handiena lortzea egoera hobetzeko eta lanpostuak tokiko arloan sor daitezen sustatzeko berriazko neurriak abian jarri.

Helburu hori lehentasunezko zatik definitzen duen esparru erregulatu bat badagoenez, ez da beharrezkoa Nafarroako lurralderako berriazko enplegu plan bat onestea. Garrantzitsuena da plangintza bat izatea eta aipatutako helburua lortzen laguntzeko neurriak garatzea.

Horri dagokionez, 2018. urtean, honako neurri hauek garatu dira:

- ERSISI proiektua.

- Banakako arreta eta lanbide-orientazioa ematea langabezia dauden pertsonen, Tuterako Enplegu Agentziako langileen bitartez.

- Lanbide-orientazioko zerbitzuak esparru-akordioaren adjudikazio-hartzaile ziren entitateen bitartez.

- Proiektu bereziak.

- Tuterako Enplegu Agentziak proposatuta garatutako prestakuntza-ekintzak.

- Enpresa txiki eta ertainentzako diru-laguntzak, langileen prestakuntzarako.

- Langabetuentzako eta landunentzako prestakuntza ekintzak, diru-laguntzen deialdiaren bitartez.

- Tailer-eskolak eta programa integratuak.

- Enplegu autonomia sustatzeko diru-laguntzak.

- Toki entitateentzako diru-laguntzak, langabetuak kontratatuzko.

- Enpresentzako pizgarriak, langabetuak kontratatuzko.

#### 1) ERSISI proiektua.

“Enhancing the Right to Social Inclusion through Service Integration” (Gizarteratzerako eskubidea indartzea zerbitzuen integrazioaren bitartez) programa esperimental bat da, langabetuen gizarteratzea errazteko, zeinak, 2016tik 2019ra Tuterako eta Sakanako eskualdeetako gizarte- eta enplegu-zerbitzuak batera bildu baititu.

Funtsezko helburua da enplegurako arreta-/aktibazio-eredu berri bat diseinatu eta proban jartzeko egoera ahulean dauden langabetuentzat, gizarte- eta enplegu-zerbitzuen esku-hartze koordinatu batean oinarrituta. Onuradunek beren beharrezkoen arabera eta egoera partikularerako banakako zerbitzu bat daukate, zeinak azpimarra jartzen baitu norberaren indarguneetan eta auto-determinazioan.

2018an, Tuteran, 225 pertsonen hartu dute parte programa horretan, errenta bermatua edo bestelako enplegu-laguntzak jasotzen dituztenek (141 emakume eta 84 gizon).

2) Banakako arreta eta lanbide-orientazioa ematea Tuterako Enplegu Agentziako langileen bitartez.

Aurten, Tuterako Enplegu Agentzian, langabetuen enplegarritasunari buruzko 823 diagnostiko egin dira, haien gaitasunak, lan-esperientzia, prestakuntza-maila eta abar zehazteko lehen urrats gisa. Diagnostiko horrek aukera ematen du pertsonaren gizarte- eta lan-egoera ezagutzeko. Behin diagnostikoa eginda, banakako ibilbideen bitartez zehaztu ahal dira pertsona horren laneratzeari lortzeko egin beharreko jarduketak.

Halaber, 633 ibilbide pertsonalizatu egin dira langabetuentzat. Ibilbide horiek, diagnostikotik abiatuta egindakoez, kasuko langabetuak bere laneratzeari lortzeko behar dituen jarduketa guztiak jasotzen ditu (prestakuntza, curriculum vitaearen gaurkotzeak, enplegua bilatzeko tailerrak, motibazio-tailerrak eta abar).

3) Lanbide-orientazioko zerbitzuak esparru-akordioaren adjudikazio-hartzaile ziren entitateen bitartez.

Aurten, lanbide-orientaziorako zerbitzua emateko esparru-akordioaren bitartez, Erriberako lurralde-esparruko 969 pertsona bideratu dira entitate adjudikazio-hartzaileetara. Pertsona horiek beren enplegarritasuna hobetzen lagundu duten lanbide-orientazioko ekintzetan hartu dute parte.

4) Proiektu bereziak.

Proiektu bereziak berariazko prestakuntza-ekintzak dira, sektoreen, lurralde-eremuen edo enpresen eskariz diseinatu eta garatutakoak. Tuterako kasuan, zenbait analisi egin dira, eta bilerak egin dira eskualdeko enprekin langile kualifikatuak edukitzeko dauzkaten beharrak detektatu eta langabetuak gai horietan gaitzera zuzendutako berariazko prestakuntza ekintzak programatzeko. Honako hauek izan dira proiektu horiek:

AMAITUTA	Ontziratze-linea erabiltzea (Aceites Artajo)	AER.	Fontellas
AMAITUTA	Hiri baratze ekologikoa	Tuterako Udala	Tutera
AMAITUTA	Oinarrizko igeltserotza	Tuterako Udala	Tutera
AMAITUTA	MIG-MAG soldadura (Sic-Lázaro)	Sic-Lázaro	Buñuel
AMAITUTA	ORGA JASOTZAILEEN OPERADOREA (FITERO)	AGRO-ALHAMA	Fitero
AMAITUTA	Plataforma jasotzailea	AGRO-ALHAMA	Fitero
AMAITUTA	Lorezaintza	Gizarte Zerbitzuetarako Mankomunitatea	Cascante
AMAITUTA	Kontratuak. Nominak. Gizarte Segurantza	EPER, S.L.	Cintruénigo
AMAITUTA	Erakinen garbiketa (MF0972 eta MF0996)	Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatea	Ablitas
AMAITUTA	Soldadura MIG-MAG	EPER, S.L.	Cintruénigo
AMAITUTA	Etorकिनenzako ekintzailatza	Nafarroako Ganbera	Iruña
AMAITUTA	Nekazaritzarako langile balioaniztuna	AGRO-ALHAMA	Fitero
UNE HONETAN EGITEN ARI DA	4.0. ZUZENDARIA ERALDAKETA DIGITALA BULTZATUZ	AIN	Tutera
AMAITUTA	Erakinen garbiketa (MF1087 eta MF1088)	Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatea	Ablitas
AMAITUTA	“UDA BERANDUKO BERDURAK” JARDUNALDIAK	Asoc. de Hostelería y Turismo de Navarra	Burlata/Tutera
AMAITUTA	LAP, Biruta bidezko mekanizatuko makinako operadorea	AER	Tutera
AMAITUTA	Eskolako jantokiko laguntzailea	Buñuelgo eta Ribaforadako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatea	
AMAITUTA	ORGA GIDARIA ETA MARGOLARITZAKO LANGILEA	EPER, S.L.	Cintruénigo
UNE HONETAN EGITEN ARI DA	Ingelesa enpresaburuarentzat/profesionalarentzat Oinarrizko maila	AGRO-ALHAMA	Fitero
UNE HONETAN EGITEN ARI DA	Ingelesa enpresaburuarentzat/profesionalarentzat Tarteko maila	AGRO-ALHAMA	Fitero
AMAITUTA	Gizonezkoentzako galtzen oinarrizko ebaketa eta jantzigintza	AGRO-ALHAMA	Cintruénigo
AMAITUTA	Produktu fitosanitarioen manipulatzaileria izateko zubi-ikastaroa —maila kualifikatua—	AGRO-ALHAMA	Fitero
AMAITUTA	LAP, METALAREN DEFORMAZIO BIDEZKO MEKANIZATUA ETA EBAKETA	AER	Tutera
AMAITUTA	ERAKUSLEIHO-APAINKETA	Nafarroako Merkataritza Ganbera	Tutera
UNE HONETAN EGITEN ARI DA	LAP, ENBOR-İKASTAROA	AGRO-ALHAMA	Fitero
AMAITUTA	Zubi-garabiaren erabiltze segurua	EPER, S.L.	Cintruénigo
AMAITUTA	Zubi-garabiaren erabiltze segurua	EPER, S.L.	Cintruénigo

5) Langabetuen beharrizan bereziei erreparatuta egindako prestakuntza ekintzak, Tuterako Enplegu Agentziaren proposamenez eginak.

Tuterako Enplegu Agentziako langileek, enplegarritasunari buruzko diagnostikoen eta garutako banakako ibilbideen arabera, langabetuen prestakuntza-beharrak detektatzen dituzte, eta ekintza horiei buruzko plangintza egiten dute.

2018an 9 ikastaro egin dira, guztira 520 orduko iraupenarekin; haietan, 104 pertonek hartu dute parte. Honako gai hauei buruzkoak izan dira ikastaro horiek: kudeaketa administratiboa, lan-arriskuen prebentzioa igeltserotza lanetan, alfabetizazio informatikoa, elikagaien arloko higienezari buruzko oinarrizko prestakuntza, industriarako langile balioaniztuna, eta abar.

6) Enpresa txiki eta ertainentzako diru-laguntzak, langileen prestakuntzarako.

Enpresa txiki eta ertainen arloko prestakuntzarako diru-laguntzen deialdiak, enpresa horien

prestakuntza-ekintzak finantzatzeko, bai eskumenak eta kualifikazioak hobetzeari begira, bai landunen gaurkotze eta espezializazio profesionalari begira.

2018an, Erriberan, 9 ekintza garatu dira. Haietan, 48 langilek hartu dute parte.

7) Langabetuentzako eta landunentzako prestakuntza ekintzak, diru-laguntzen deialdiaren bitartez.

Aurten, langabetuei zuzendutako prestakuntza-ekintzen deialdian, profesionaltasun-ziurtagiria emateko 29 ikastaro egin dira, eta haietan 435 pertsonak hartu dute parte. Landunen esparruan, 52 ekintza egin dira, eta haietan 805 pertsonak hartu dute parte.

8) Tailer-eskolak eta programa integratuak.

2018an, Erriberako lurralde-eremuan, honako programa integratu eta tailer-eskola hauek garatu dira, prestakuntza eta enplegua konbinatzen dituztenak:

PROIEKTUA	E.T./P.I.F.E.	HERRIA	IKASLE KOPURUA
Tutera eta ostalaritza I	P.I.F.E. Tutera		15
Tutera eta ostalaritza II	P.I.F.E.	Tutera	15
Mendekotasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitarioa gizarte erakundeetan II	P.I.F.E.	Corella	20
Mendekotasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitarioa gizarte erakundeetan III	P.I.F.E.	Corella	20
Mendekotasunaren eta dibertsitate funtzionalaren arreta osoa	E.T. Tutera		15
Lorezaintza	P.I.F.E.	Tutera	16
Oihangintza eta lorezaintza	P.I.F.E.	Arguedas	15

9) Enplegu autonomoa sustatzeko diru-laguntzak.

Aurten Erribera aldean langile autonomo gisa alta eman duten 94 langabeturi diru-laguntza eman zaie. Emandako diru-laguntza guztien % 15 da hori.

10) Toki entitateentzako diru-laguntzak, langabetuak kontratatzeke.

Aurten, Erriberako lurralde-eremuko toki entitateek langabetuekin izenpetutako 231 kontratatutarako diru-laguntza eman da. Diruz lagundutako kontratu guztien % 27,90 dira.

11) Enpresentzako pizgarriak, langabetuak kontratatzeke.

Enpresek praktikaldiak egiteko eta sektore estrategikoetarako gazteak kontratatzeke eta iraupen luzeko langabetuak eta errenta bermatuaren jasotzaileak kontratatzeke pizgarrietarako deialdien bitartez, Erriberako lurralde-eremuko 54 kontrataziotarako diru-laguntzak eman dira. Deialdi horien bitartez diruz lagundutako kontratu guztien % 10,60 dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko abenduaren 11n.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

## **Galdera, Helduen Bigarren Hezkuntzako Nafarroako Institutuko espazio-faltarako konponbideari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Helduen Bigarren Hezkuntzako Nafarroako Institutuko espazio-faltarako konponbideari buruzkoa. Galdera 2018ko azaroaren 16ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari (UPN) atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-18/PES-00242). Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Félix Urabayen Helduen Bigarren Hezkuntzako Nafarroako Institutua ikastetxea antzinako Navarra Villoslada IParen eraikinera aldatu zen, Iruñeko Udalak 2014an Nafarroako Gobernuari higiezinaren erabilera laga ondoren.

Ikastetxe horren matrikularen bilakaera aldakorra izan da azken urteetan; dena den, azken bost urteetan matrikula nabarmen jaitsi da.

Gainera, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako

irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeen gutxieneko baldintzak ezartzen dituen otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian honako hau ezartzen da helduen hezkuntza eskaintzen duten ikastetxeei buruz:

“2. Derrigorrezko bigarren hezkuntzako edo/eta batxilergoko ikasketak ematen dituzten helduentzako ikastetxeak errege dekretu honetan xedatutakoa bete beharko dute instalazioei eta irakasleen titulazioari dagokienez. Instalazioetarako baldintzak helduen irakaskuntzei buruzko berariazko antolamenduari egokituko zaizkio.”

Hori gorabehera, Hezkuntza Departamentua Felix Urabayen Helduen Bigarren Hezkuntzako Nafarroako Institutuaren eta José María Iribarren Helduentzako Hezkuntza Iraunkorreko Ikastetxe Publikoaren leku-beharrak aztertzen ari da, Euskarabideak 2019an libre utziko duen tokia bi ikastetxe horien beharrezanean begira banatzeko.

Azterlan horren emaitzekin, eta bi ikastetxe horien beharrezanean begiratuta, Hezkuntza Departamentuak ikastetxe bakoitzari behar dituen tokiak esleituko dizkio, Euskarabideak behin betiko libre uzten duen tokia hobeki aprobeztatzeko aldera.

Iruñean, 2018ko abenduaren 10ean

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuako eluduna: María Solana Arana



## **Galdera, Nafarroako Erriberaren Espezializazio Adimendunaren Eskualdeko Estrategiaren garapena babesteko neurriei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Erriberaren Espezializazio Adimendunaren Eskualdeko Estrategiaren garapena babesteko neurriei buruzkoa. Galdera 2018ko azaroaren 16ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00243 galdera parlamentarioa egin du, jakin nahi baitu zein neurri hartu diren Nafarroako Erriberaren Espezializazio Adimendunaren Eskualdeko Estrategiaren garapena babesteko. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak positiboki baloratu du beren tokiko agenteen lidergoaren pean beren esparruko ekonomia, enplegua eta enpresa-ehundura bultzatzeko Nafarroako eskualdeek hartu duten konpromisoa, eta ekimen horiek indartu nahi ditu.

Babes hori bideratzeko erabaki zen modua izan zen laguntzen deialdi bat onestea eskualdea aktibatzeke planak egin eta betearazteko; plan horiek, izan ere, kasuko lurraldeko entitate publiko zein pribatuen ordezkariak zabalaren bermea eduki behar zuten, eta, gainera, talde operatiboago eta dinamikoago bat eduki behar zuten, bultzatzaile jardunen zuena.

Eskualde bakoitzak aktibazio plana bere erritmoaren eta inguruabarren arabera garatu zezan errazteko, hiru babes-linea jaso ziren:

– Beren planaren hasierako etapan –plana diseinatu eta sortzea– zeuden eskualdeek A linearen alde egin zezaketean, balio erantsiko kanpoko laguntza finantzatzera bideratua, eskualdea aktibatzeke plana prestatzen laguntzeko.

– Behin eskualdea aktibatzeke plana onetsita, lurraldeek B linea hauta dezakete –haren bidez, planean jasotako jarduketan exekuzio-gastuak finantzatzen dira–, bai eta C linea ere, zeinak planaren helburu eta ildo estrategikoetan sartzen diren inbertsio-proiektu estrategikoak finantzatzen baititu.

2017ko deialdian, bi espediente izapidetu ziren Nafarroako Erriberako Eder partzuergoaren izenean, bera baita Nafarroako Erriberaren Espezializazio Adimendunaren Eskualdeko Estrategiaren (NE-EAEE) talde bultzatzailea. Nafarroa-S3 Espezializazio Adimendunaren Estrategiarekin bat, NE-EAEEK sei arlo lehenesten ditu, 17 erronka identifikarekin, bai eta lehiakortasuneko bost faktore ere, 8 erronkarekin. 25 erronka horiek betetzea lortuko da 50 proiektu estrategiko garatuz; horietarako, aurrekontua eta kronograma bat zehaztu ziren.

Lehenengo espedientea, zeinaren eskaera 2017ko azaroaren 8an egin baitzen, deialdiko A linearen alde egiten zen, eta eskatzen zen NE-EAEE Nafarroako Erriberako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia egiteko gastuak finantzatzeko. Aho batez onetsi zuen hori Eder Partzuergoaren XXXVI. Batzar Nagusi Bereziak 2017ko azaroaren 10ean egindako bilkuran.

Gastu horien onarpena eta ordainketa – 19.270,72 euro ziren– Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzendari nagusiaren abenduaren 28ko 962E/2017 Ebazpenaren bidez onetsi ziren.

Bigarren espedientea 2017ko azaroaren 24an erregistratu zen, laguntzen B lineara zuzenduta, NE-EAEEaren hurrengo bi proiektuen exekuzioa finantzatzeko, honako aurrekontu honekin:

Jarduketa zk.		Eskatutako zenbatekoa
1	P37. Industria-lurzorua kudeaketarako eta sustapenerako eskualdeko zerbitzua	18.913,20
2	P48. Behatokia diseinatu eta abian jartzea	22.678,45
<b>Guztira</b>		<b>41.591,65</b>

Jarduketak bat datoz 37. proiektuarekin, "Industria-lurzorua kudeaketarako eta sustapenerako eskualdeko zerbitzua eta Erriberako Jarduera Ekonomikoko Eremuen Katalogoa", eta 48. proiektuarekin, "Eskualdeko Garapen Adimendun, Jasangarri eta Integratzailearen Behatokia diseinatu eta abian jartzea", eta Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzendari nagusiaren abenduaren 28ko 963E/2017 Ebazpenaren bidez onartu ziren eta eskatutako zenbatekoa ordaindu zitzaizen.

2017ko deialdian bezala, eta eskualdeko plan bakoitzaren garapenari bere berezitasunen arabera jarraitutasuna emateko xedez, 2018an aurreko urteko oinarri arautzaileetako hiru laguntza-lineei eutsi zaie (A, B eta C).

Deialdi hori Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzendari nagusiaren maiatzaren 22ko 74E/2018 Ebazpenaren bidez onetsi zen, eta hartatik datozen konpromisoari aurre egi-

teko guztira 1.520.000 euroko kreditua baimendu zen: 1.200.000 euro A eta B lineetarako, 2018ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Eskualdeetako plan estrategikoak" izeneko 810001 81100 4819 422203 partidaren kargura, eta 320.000 euro C linearako, "Eskualdeetako plan estrategikoak. Proiektuak" izeneko 810001 81100 7819 422200 partidaren kargura.

Banakako emate-araubidea izapidetuta, eskaerak aurkezteko epea 2018ko azaroaren 30ean amaitu zen.

Eder Partzuergoak bi eskaera aurkeztu ditu aurtengo laguntzen deialdirako, bata B linearako, NE EAEko egindako proiektuak finantzatzeko eta bestea C linearako, eskualdeko inbertsioko proiektu bat finantzatzeko.

Eskaera horietako lehenengoa 2018ko azaroaren 13an erregistratu zen, honako aurrekontu-xehetasun hauekin:

Jarduketa zk.		Eskatutako zenbatekoa
1	P17. "Touring gastronomikoa" turismo-produktua sortzeko proiektua	5.929,00
2	P20. Sortzaile berrientzako sariketarako egiteko kultur proiektua	47.796,94
3	P2. Industria sortzaile, kultural eta digitalak garatzeko lankidetzak-espazioak	13.218,00
4	P37. Industria-lurzorua kudeaketarako eta sustapenerako eskualdeko zerbitzua eta Erriberako jarduera ekonomikoko eremuen katalogoa	3.900,00
5	P46. Eskualdeko entitate publikoek garatu eta kudeatzekoak diren eskualdeko-zerbitzuen karta	21.089,50
6	P48. Eskualdeko Garapen Adimendun, Jasangarri eta Integratzailearen Behatokia diseinatu eta abian jartzea	15.300,00
7	Gobernantza	9.500,00
<b>Guztira</b>		<b>116.733,44</b>

Eta Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzendari nagusiaren azaroaren 21eko 733E/2018 Ebazpenaren bidez laguntza hori eman zitzaizen; hain zuzen ere, eskatutako zenbatekoa: 116.733,44 euro.

Bigarren eskaera 2018ko azaroaren 19an aurkeztu zuen, laguntzetarako C linearako; horrekin, Eder Partzuergoak lankidetzak-espazio bat (edo coworking) finantzatu nahi du industria sortzaile, kultural eta digitalen ekimenak garatzeko. Laguntza hori -45.950 euro eskatu ziren- Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzenda-

ri nagusiaren azaroaren 28ko 741E/2018 Ebazpenaren bidez onetsi zen.

Gaur egun, eskualdeko aktibaziorako planak egiteko eta betearazteko diru-laguntzaren deialdiaren zerbitzu kudeatzailea kasuko ordainketa eta likidazio espedienteak izapidetzen ari da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko abenduaren 21ean

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaiola

## **Galdera, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako programen eta finantzaketaren arloan garatzeko Erregelamendua onesten duen maiatzaren 22ko 32/2013 Foru Dekretua aldatzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako programen eta finantzaketaren arloan garatzeko Erregelamendua onesten duen maiatzaren 22ko 32/2013 Foru Dekretua aldatzeari buruzkoa. Galdera 2018ko azaroaren 16ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak galdera egin du Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako programen eta finantzaketaren arloan garatzeko Erregelamendua onesten duen maiatzaren 22ko 32/2013 Foru Dekretua aldatzeari buruz (9-18/PES-00244). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Aldatu al du Nafarroako Gobernuak Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako programen eta finantzaketaren arloan garatzeko erregelamendua onesten duen maiatzaren 22ko 32/2013 Foru Dekretua, Nafarroako Erriberaren errealitate sozial berriari egokitzeko?

2018. urtearen hasieran, Zerbitzuei buruzko Foru Legea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako programen eta finantzaketaren arloan garatzeko Erregelamendua onesten duen maiatzaren 22ko 32/2013 Dekretua aldatzeko prozedura administratiboa hasi zen. Behar ziren txosten tekniko eta juridikoak jaso ondoren, otsailaren 23tik martxoaren 16ra Gobernu Irekiaren Atarian arau aldatzeko alde aurreko kontsulta-prozedura hasi zen; horren helburua da herritarrek eta aipatutako dekretua aldatzeko etorkizuneko arauak ukituta gera litezkeen ordezkariak-erakundeek hari buruzko iritzia ematea.

Aldez aurreko kontsulta-prozesu horretan arau berriaren helburua zehaztu zen; izan ere, haren xeda da egungo beharrian sozialak kontuan izatea, haiek berehala erantzuna ematea eta finantzaketarako sistema arin, egonkor eta eraginkorra ezartzea. Aldez aurreko kontsulta-aldi horretan, ez zen araua aldatzeari buruzko ekarpenik jaso.

Oinarrizko Laguntzaren Atala eta Araubide Juridikoaren Atala finantzaketari buruzko dekretuaren proposamenean, eta ia amaituta dago. Dekretuak erantzuna eman beharko die bai gizartean dauden beharrian sozialei, bai Nafarroako lurralde-aniztasunari. Azterketak eta finantzaketari buruzko dekretu berriaren kontuan hartu beharreko aldagaiak eskatu dute Nafarroako errealitate sozialaren azterlan exhaustiboa egitea, eta hainbat aldagai kontuan izatea, Oinarrizko Laguntzako gizarte zerbitzuen sistema nabarmen hobetzeari begira.

Proposamena hemendik gutxira landuko da, bigarren fase batean, gizarte zerbitzuetako eta toki entitateetako teknikariekin, Udal eta Kontzejuen Federazioaren bitartez eta ukitutako beste balizko eragile batzuen bitartez.

Hala eta guztiz ere, oinarrizko gizarte zerbitzuetarako guztizko finantzaketa, Nafarroa osoko zenbatekoak hartuta, % 41,83 handitu da aurreko legegintzaldiarekin alderatuta, eta 2018ko ekitaldian 22.200.000 eurora iritsi da. (14.500.000 euro Oinarrizko Laguntzako oinarrizko programak garatzeko; 6.000.000 euro enplegu sozial babestuko programa garatzeko, eta 1.700.000 euro larrialdi sozialeko laguntzetarako).

Erriberan lan egiten duten oinarrizko gizarte zerbitzuen kasu zehatzean, 2018an erabilitako zenbatekoa % 50,06 handitu da aurreko legegintzaldiarekin alderatuta, eta 3.064.844,76 euroko zenbatekora iritsi da: oinarrizko programen garpena (1.852.109,31 euro), larrialdi sozialeko laguntzen programa (265.301,43 euro, legegintzaldi honetan sortutako partida baten bidez) eta enplegu sozial babestua (947.434,02 euro).

Nolako indartze tekniko egin du Nafarroako Gobernuak enplegu zerbitzuetan haiek ibilbide pertsonalizatuak egiteko daukaten ahalmena handitzeko, gizarte bazterketaren arriskuan dau-

den pertsonen gizarteratzearen eta laneratzearen arloan?

2017-2020 aldirako enplegu politika aktiboek buruzko akordioan, NL-NEZeko Gobernu Kontseilua osatzen duten eragile sozial eta ekonomikoek bere egin zuten pobrezia eta gizarte bazterketa nabarmen gutxitzearen aldeko eta sektore ahulenen laneratzea sustatzearen aldeko apustua, gizarte kohesionatuago bat lortzeko. Horretarako, helburu batzuk eta hura lortzera bideratutako neurri batzuk ezarri ziren, eta jarduketak guztiak gidatuko zituzten baldintza batzuk jarri ziren lehen aldiz. Halaber, lanerako beste metodologia bat ezarri zen, pertsonentzako banakako laguntzan oinarritua, bai eta kolektiboaren arabera edo enplegu politika aktiboak artikulatzen dituzten arau-esparruen barruan lehentasunezko zatitza jotzen diren ezaugarrien arabera zatitze bat ere. Garrantzi berezia dauka Enplegu Zerbitzuen Zorroak; zerbitzu horien artean nabarmentzen da zerbitzuen orientazioa, banakako ibilbidearekin, zerbitzu nabarmendu bezala.

Gizarte bazterketako egoeran edo hartan egoteko arriskuan diren pertsonen kolektiboak ari garenez, NL-NEZek gizarte zerbitzuekin lan egiten du pertsona horiei arreta emateko, bai bere langileekin, bai orientazio zerbitzuak emateko kontratua izenpetua duten entitateetako langileekin ere.

Baliabideak:

NL-NEZ, Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusiarekin batera, baliabide informatiko eta ebaluazio-tresna berriak garatu ditu, kolektibo horrentzako arretaren koordinazioa bideratzen dutenak; horien bitartez, informazioa partekatzen da, egokitze hobeagoa lortzeko, bai arretari dagokionez, bai deribazioak eginez gizarteratzea edo enplegagarritasuna hobetzeko erabiltzen diren baliabideei dagokienez ere:

– Lanerako aktibazioaren historiala kudeatzeko eta erregistratzeko aplikazioa, "Orientasare" izenekoa, aurrez zegoen zerbitzu-kodeen erregistro hutsaren orde.

– Enplegagarritasuna baloratzeko eskala.

– Bazterketa baloratzeko tresna.

– Datu base partekatutak.

NL-NEZen giza baliabideei dagokienez, enplegu-agentzia guztiek enpleguaren eta prestakuntzaren arloko erdi mailako teknikariak edukiko dituzte, bai eta enpleguaren eta prestakuntzaren arloko goi mailako teknikariak ere. Biek artatzen dute kolektibo hori. Enpleguaren arloko lanbide-

profilen lehenengo berrantolaketa da, orain dela 20 urte erakundea sortu zenetik.

Gainera, Nafarroan lanerako orientaziorako sistema bakarra sortzearen kariatara, NL-NEZek pertsonen arreta emateko kontratuak izenpetu ditu entitate espezializatuekin, orientaziorako esparru-akordioaren bitartez. Lehenengo aldiz, NL-NEZek modu proaktiboan ematen ditu hitzorduak, jendekak zerbitzuak erreklama ditzan itxaron beharrean. 2018an, orientazio-zerbitzua modu proaktiboan eskaini zaie errenta bermatua jasotzen duten 3.091 pertsonari. Gainera, entitateen kontratazio berri baten bitartez, 2020ko abenduaren 31ra arte gutxienez ere 10.206 pertsona intentsitate handieneko zerbitzuekin artatu ahalko dira (orientazioaz gainera, prestakuntza- eta enplegu-ibilbideen jarraipena eta gizarteratzerako lagun egitea); horietatik, gutxienez ere 1.530 bazterketa-arriskuan egonen dira, eta beste 510ek, berriz, desgaitasunen bat izanen dute aitortua. Lan horri, agentziek garatutakoa gehitu behar zaie.

Hartara, enplegu arloko teknikarien, entitate laguntzaileen, gizarte zerbitzuen eta Gizarteratzeko eta Babes Sozialerako Zuzendaritza Nagusiko baliabideen lan bateratu eta koordinatuarekin, baliabideak optimizatzea lortzen da, eta haiek indartu ere egiten dira, eta arreta personalizatua ematen da gizarteratzea lortzeko egiten diren jarduketak bikoiztu gabe.

Gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen artean zer koordinazio-mota berri ezarri da pertsona horien enplegagarritasuna bultzatzeko?

Honako hauek dira garatzen ari diren jarduketak:

- Enplegu egokitua onartzeko prest egoteko betebeharrerako jarraipen- eta kontrol-protokoloa (Gizarteratzerako eta bermatutako errentarako eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legearen 18.c) eta d) artikulua).

- Politika sozialen arloko I+Gren esparruan, ERSISI proiektu pilotua (Gizarteratzerako eskubideak indartzea zerbitzuen integrazioaren bitartez) ezarri da, kolektibo ahulenek enplegua lor dezaten errazteko. Proiektu hori batera garatuko dute oinarritzko gizarte zerbitzuek eta enplegu zerbitzuek, eta esperientzia pilotu bezala garatzen ari da Tuteran eta Sakanako gizarte zerbitzuetako mankomunitateko herrietan. 225 pertsona laguntzen ari dira.

- ERSISI proiektuaren esparruan, NL-NEZen Tuterako Agentziak, Tuterako Udalak, Eder Partzuergoak, Erriberako Enpresaburuen Elkarteak, Tuterako ANELek eta UAGN sindikatuak ekintza-

talde bat eratu dute hiriko kolektibo ahulenen gizarteratzea eta laneratzea errazteko.

Eta honako azterlan hauek egin dira: “Enplegu aukerak ERSISI II proiektuaren esparruan”, “Erriberako langabetuak enplegurako prestakuntzaren aurrean” eta “Nafarroako Erriberako langabetuei zuzendutako prestakuntza-ekintzak garatzeko oztopoak”. Azterlan horiek gida moduan erabiltzen ari dira prestakuntza ekintza bereziak garatzeko.

- Enplegutik baztertutako pertsonen buruzko informazioa biltzeko sistema, zeinak haien egoerari buruzko datuak jasotzen baititu, baliabide egoikienei buruzko erabakiak hartzeko erabiliko direnak.

- Gizarteratzerako eskubideari buruzko informazio-sistema: Oinarrizko gizarte zerbitzuetako profesionalei zuzendutako diagnostikoko eta esku hartzerako tresna bat egitea.

- Baterako lan-saioak, bai zuzendaritza mailan, bai toki mailan, enplegu zerbitzuen eta gizarte zerbitzuetako sistemaren artean.

- Proiektu bereziak. 2015etik, NL-NEZek prestakuntza antolatzen du, eskualdeko enpresa eta sektoreek eta entitateek eskatutakoa, “Proiektu Bereziak” izeneko formularen bidez: erantzun arin bat da, langabetuentzako edo landunentzako ikastaroen ohiko programazioaz gainerakoa. 2018an, NL-NEZek 23 proiektu berezi programatu ditu Erriberan: 300 pertsona ingururi eman die prestakuntza, eta 150.000 inbertitu dira. Ikastaroetatik batzuk oinarrizko gaitasunei zuzenduta daude (nekazaritzarako langile balioaniztuna, igeltserotza, margolaritza, traktorea eta abar). Prestakuntzaren arloan, besteak beste, beste 11 ikastaro nabarmendu behar dira, baliabide propioekin programatuak, bai eta prestakuntzarako entitateen bidezko eskaintza, prestakuntzako eta enpleguko programa mistoetako eskaintza, lantegi-eskola bat eta 7 PIFE ere.

Zer neurri, baliabide tekniko eta ekonomiko ezarri du Nafarroako Gobernuak etorkinen laneratzea bultzatzeko?

Nafarroako Gobernuak bultzatutako neurriak eta ekintza-ildoak, lan-merkatu sartzekoak, haien xede diren pertsonen normalizazioa bilatzen

dute, eta xede dituzten pertsonen edo/eta kolektiboen beharrezanetan esku hartzeko metodologiari egokitzen zaizkio. Horri dagokionez, honako hauek dira garatutako ekintzak:

- Gizarte enplegu babestua: Aurrekontua % 172,73 igotzea 2015ekoarekin alderatuta: 2.200 onuradun 2016ko irailetik 2018ko irailera. Horieta-tik % 90ek errenta bermatua jasotzen dute.

- Enplegu komunitarioko proiektuetarako diru-laguntzak: Horretarako aurrekontua % 70,16 handitu da 2015ekoaren aldean, Nafarroan. Erriberako kasu zehatzean, 2018an guztira 189.899,42 euro bideratu dira: aurreko legegintzaldiarekin alderatuta % 95,77ko igoera da hori.

- Enplegua sustatzeko neurri berriak, bai eta enpresentzako eta entitateentzako diru-laguntzen ildo berria ere, errenta bermatua hartzen dutenak kontratatzeagatik, eta toki entitateen bidezko kontrataziorako deialdiaren aldaketa (NL-NEZ). Horri dagokionez, 2017an 3.855.691,00 euro bideratu ziren horretara, 2014an baino milioi bat euro gehiago, 200 lanpostu gehiagorekin, 894 lanpostuko kopurura iritsi arte: errenta bermatua hartzen duten lautik bat da hori (2015ean % 6,20 zen). 2018rako, amaierako aurrekontua 4,3 milioi eurokoa izanen da.

- 2018ko proiektu pilotua, Erriberako etorkinen ekintzailtzari laguntzekoa, EDER partzuergoarekin batera lan eginez, bi azterlan horiek egitearen ondorioz. Ahalegin horrek erantzun bat eman nahi dio Erriberako atzerriko etorkinen ekintzailtzako ekimenen igoerari: lan autonomoaren araubidean egiten duten proportzioa % 13,4ra igo da bi urtetan; bertakoek araubide horretan egiten duten proportzioak, berriz, ehuneko bat egin du behera. 15.000 euro. NL-NEZek, halaber, Merkataritza Ganberarekin batera lan egin du “Entryway” etorkinen ekintzailtza programaren bitartez.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko abenduaren 11n

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

## Galdera, Nafarroako Erriberako arreta pediatrikoari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Erriberako arreta pediatrikoari buruzkoa. Galdera 2018ko azaroaren 16ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-18-PES-00245), informazioa nahi baitu "Tuterako Reina Sofía Ospitaleko laguntza pediatrikoari buruz". Honako hau da Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Reina Sofía Ospitalean, Pediatria Zerbitzuaren programazioak ospitaleko laguntza pediatrikoa jasotzen du, zeina guardiako pediatria batek bermatuta baitzegoen egunean 24 orduz.

2.- Reina Sofía Ospitalean, Pediatriako larrialdiak hobetzea sustatu zen, eta horri dagokionez, triaje pediatrikoko sistema 2017ko azarotik ezarrita dago. Prestazio horren kalitatea bermatzeko, profesionalei prestakuntza eman zitzaion "Pediatriako gaixoari arreta ematea larrialdietan" ikastaroaren bitartez. A315/2017 egiaztagiri zenbakia (Espedientea: 304/2017).

3.- Tuterako Osasun Barrutiko ospitaleko arreta pediatrikoak eskualdeko ospitale baten zerbitzu-zorroaren baldintza guztiak betetzen ditu; hori dela eta, ezin da konparatu beste maila bateko edo erreferentzia tertziarioko beste ospitale batekin. Gaur egun, arloko lidergoa eramaten duten programa batzuk badauzkagu; esate baterako, IHAN (jaiotzarako laguntzaren eta amagandiko edoskitzearen humanizaziorako ekimena) deitutakoa, zeinean Reina Sofía Ospitalea 3. fasean baitago gaur egun. Halaber, fase aurreratu eta lider

bat badaukagu "Haurra mugimenduan" programan, zeinaren xedea baita haurren obesitatearen prebentzioa eta tratamendua.

4.-Tuterako Osasun Barrutiko osasun etxe guztiek Pediatria espezialitatea badute, "APEko pediatria eta ospitalez kanpoko larrialdietako pediatria. Oposizio-lehiaketa (2013-15-16 LEP)" lan-eskaintza publikoa ebatzi ondoren. Izendapenak 2018-11-12an argitaratu ziren.

5.-O-NOZek Pediatriko profesional anitzetako irakaskuntza unitate (PAIU) baten egiaztatzea eskatu du. PAIU berriak Pediatriko BAME lanpostuak 4tik 6ra igo ditu. Bestalde, PAIU berriak planteatzen du Pediatriko erizain espezialistentzako 3 prestakuntza-lanpostu sartzea.

Reina Sofía Ospitalea PAIUaren beste dispositibo baten gisara sartzen da, eta haren helburua da Medikuntzako eta Erizaintzako Pediatriko espezialitateei kalitatezko prestakuntza bat ematen laguntzea, etorkizuneko espezialistentzat jardun profesionalerako. Horrekin, nabarmen finkatuta gelditzen da Reina Sofía Ospitaleak egoiliarren prestakuntzarako ematen duen laguntza.

6.- Halaber, uztailaren 18ko 52/2018 Foru Dekretuaren bitartez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun-langileentzako lan-eskaintza publiko bat onetsi da. Eskaintza hori ekainaren 27ko 3/2017 Legean aurreikusitako egonkortze-tasari dagokio, eta 23 lanpostu huts artzen ditu, hainbat espezialitate medikotakoak; horien artean, LEPEko pediatria baten lanpostu bat dago, oinarrizko osasun laguntzaren esparrurako. Lan-eskaintza publiko horretan ezin izan dira sartu Reina Sofía Ospitalerako pediatria lanpostuak, zeren eta oraindik ere ez baitira lanpostu huts bezala finkatu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko abenduaren 10ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## Galdera, Nafarroako Erriberako Ureztatze Plana eguneratzeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galdearen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Erriberako Ureztatze Plana eguneratzeari buruzkoa. Galdera 2018ko azaroaren 16ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak, idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Foru Komunitateko Ureztatze Plana eguneratzeari buruz (9-18/PES-00247). Honako hau da Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuak Ureztatze Planaren zer gaurkotze egin du Erriberan, gazteak nekazaritzaren sektorean sartzeko behar diren lurzati-antolamenduko proiektuak egite aldera edo herri-lurren kudeaketarekin lotutako arazoei konponbidea emate aldera?

INTIA SARI egindako “Nafarroako Foru Komunitateko Ureztatze Planaren Gaurkotzea” enkargua Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiaren apirilaren 17ko 509/2018 Ebazpenaz onetsi zen.

Enkargu horrek honako fase hauek zeuzkan:

#### A) 1. FASEA

Nafarroako Foru Komunitateko 1999ko Ureztalurren Planaren gauzatze-mailaren berrikuspena.

Egindako jarduketak

Egiten ari diren jarduketak

Egiteko dauden jarduketak

Ezetsitako jarduketak

#### B) 2. FASEA

Egungo ureztatzerako hornidura-sistema desberdinen egoera:

Ebro ibaiaren goi-ibilgua (Viana-Aragoi ibaieren bokalea)

Viana, Bargota eta Mendabiako ubidea

Ega ibaia

Arga ibaia

Nafarroako Ubidearen 1. fasea

Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpena

Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpenaren eremu osagarriak

Zidakos ibaia

Aragoi ibaia

Bayunga ubidea

Bardeako ubidea

Irati ibaia

Nafarroako Hego Erribera (2016ko azterlana)

Beste batzuk

Uraren zuzkidura errealei eta azpiegituren ezaugarrii eta egoerari buruzko azterlana.

#### c) 3. FASEA

Azterlan honen jarduketa-esparruan kokatutako ureztatzaileen erkidegoen egoera. Erkidegoetako bakoitzerako honako alderdi hauek definituko dira:

Uren aprobetxamenduaren kasuko emakidaren zuzkidura hidriko teorikoa.

Hornidura-iturriaren ezaugarriak

Erkidegoaren azalera

Titularrak: kopurua, titular bakoitzeko azalera-tarteak, nagusiki nekazari direnak, lehentasunezko ustiategiak, nekazari gazteak.

Ureztatzaileen erkidegoen fakturazioa. Laboreak.

Ur-kontsumoak eta defiziten zenbatespena

Ponpaketen energia-kontsumoa

Administrazioek aurrera eramandako jarduketak

Lehorreko lurretarako ureztalur bilaka daitezkeen azalera, titularrak, partzelarioa eta titular bakoitzeko azalera-tarteak zehaztuko dira. Elkarriketak eginen dira kooperatibetan eta udaletan.

Ureztalurretarako, inkestak eginen dira erkidego bakoitzean, honako hauek ezagutzeko: egiaz-

ko eskaerak, beharrianak eta laboreak nekazari-tza-industriari begira orientatzea.

2018ko udan, honako inkesta hauek egin ziren: Ebro ibaia – 10; Odrón ibaia – 1; Ega ibaia – 12; Aragoi ibaia – 11; Arga ibaia – 2; Zidakos ibaia – 2; Irati ibaia – 3; Zaraitzu ibaia – 1; Viana, Bargota eta Mendabiako ubidea – 6; Lodosako ubidea – 2; Bardeako ubidea – 4; Ureztatzaileen erkidego orokorrak – 4.

#### D) 4. FASEA

Balizko hornidura-iturrien azterketa, honako hauei erantzuna emateko: eskari eta defizitak, haien ezaugarri teknikoak, inbertsio kostuak eta ustiaketa/mantentze kostuak.

Aurrekontuko dirua etorkizunean bi edo jarduketa gehiago egin ahal izateko ez-nahikoak izanzen direla aurreikusita, haiek beren heldutasun administratiboko gradua dela-eta has daitezkeenean, kontuan hartu beharreko parametroak eta haiei dagozkien haztatze-indizeak zehaztuko dira, jarduketak objektibotasun handiagoz lehenesteko.

#### E) 5. FASEA

Aurreko faseetan sortutako informazioan oinarrituta, "Nafarroako Foru Komunitateko Ureztatze Planaren Gaurkotzea" izeneko dokumentua idatziko da, honako aurkibide honekin:

##### OROITIDAZKIA

Nafarroako Foru Komunitateko Ureztatze Planaren Gaurkotzearen helburua

1999an onetsitako Ureztatze Planaren helburuen betetzeari buruzko azterketa

Nafarroako Foru Komunitateko ureztatze-sistemen egungo egoera

Ureztatzaileen erkidegoen ezaugarriak eta beharrak

Eraldatu beharreko lehorreko eremu berriak

Ureztatzeko uraren eskaerak eta erabilgarri dauden baliabide hidrikoak

Ureztalurretan egindako inbertsio publiko eta pribatuak

Ureztalurren arloko jarduketak hautatzeko irizpideak

##### OROITIDAZKIAREN ERANSKINAK

Aurreko faseetan sortutako dokumentazio garrantzitsuena "Nafarroako Foru Komunitateko Ureztatze Planaren Gaurkotzea" dokumentuaren oroitidazkiaren eranskin gisa jasoko da.

##### PLANOAK

Lehenengo lau faseak 2018an egin dira, eta bosgarrenaren enkargua, berriz, 2019ko lehen seihilekoan egingen da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko abenduaren 12an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea



## **Galdera, Nafarroako Erriberako baso-masak espezie autoktonoen bidez kontserbatzeari eta basoberritzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Erriberako baso-masak espezie autoktonoen bidez kontserbatzeari eta basoberritzeari buruzkoa. Galdera 2018ko azaroaren 16ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Alberto Catalán Higuera foru parlamentariak idatziz erantzuteko galdera batzuk egin ditu (9-18/PES-00248). Hauxe da Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariak haiei ematen dien erantzuna:

.- Nafarroako Gobernuak zer erabaki hartu du Erriberako baso-masak espezie autoktonoen bidez kontserbatzeko eta basoberritzeko?

Landa ingurunean aurrera eramaten diren politiken zatirik handiena "Landa Garapenerako Programak" deitutakoen babespean egingen dira; bereziki honako xede hauetara bideratutako politikak: nekazaritza eta basogintza, baliabideen efizientzia sustatzea eta karbono gutxiko ekonomiara igarotzea, hartara nekazaritzaren, elikagaien eta basogintzaren sektoreak klima aldaketari egokitu ahal izateko. Egun indarrean den Nafarroako Landa Garapenerako Programa 2015eko azaroaren 18an onetsi zuen Europako Batzordeak, eta hartatik dator neurrien zati handi bat.

Aipatutako dokumentuaren aurrekoa den AMIA analisia eta beharrianak atzematea atalean,

beharrian baten gisara identifikatzen da "Landa eremuetako zuhaitz-eremuen azalera handitzea" nahiz eta lurraldeak baso-azalera handia duen (Nafarroako azalera osoaren % 60 basoa da) eta hartatik % 73,54 zuhaitz-basoa den (Iturria: Languarren Baso Inbentario Nazionala). Beharrian horretarako argudio gisa aipatzen da azalera hori handitzera bideratutako jarduketekin jarraitu beharra dagoela bai nekazaritza-lurretan, bai baso-lurretan eta, bereziki, arrisku natural eta antropikoek ukitutako eremuetan, onura bikoitza konbinatuz: batetik, ingurumena hobetzea edo mantentzea eta, bestetik, ahal den neurrian, klima-aldaketa arintzea.

Programako AMIA analisia deskribatu eta argudiatutako beharrian hori geroztik gauzatu zen Nafarroako Landa Garapenerako Programaren 8. neurriaren garapenean. 8. neurri horrek honako izendapen hau dauka: "Baso-eremuak garatzeko eta basoen bideragarritasuna hobetzeko inbertsioak".

Neurri hori, mendien arloko foru araudian logikoki txertatuta egoteaz gainera, Europako mailan enkoadratuta dago, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamenduari 21. artikuluan —Feader-Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzaren bitarteko landa garapenerako laguntzari buruzkoa da—.

Neurri horren barruan, 5 azpi-neurri jasotzen dira. Ondoren garatzen ditugu galdera parlamentarioarekin zerikusia dutenak:

- Basoberritzerako/baso-azalera sortzeko laguntza. Landaketen mantentzeari eta nekazaritza-lurak basoberritzeko aurreko kanpainetako errenta-galerari lotutako neurriak dira. Erriberan, azken urte hauetan, honako kopuru hauek ordaindu dira:

2011	2012	2013	2014	2015	2016
116.189,41 €	128.804,30 €	101.126,93 €	136.107,31 €	100.362,84 €	76.979,88 €

• Baso-ekosistemen egokitze-gaitasuna eta ingurumen-balioa handitzeko inbertsioetarako laguntza. Azpi-neurri hori gauzatzen da urtero egiten diren baso lanetarako laguntzetarako kanpainetan, toki entitateek edo partikularrek eskatuta egiten direnetan. Erriberan, azken urte hauetan, honako zenbateko hauek ordaindu dira toki entitateentzako baso-lanetarako laguntzetarako kanpainan:

2011	2012	2013	2014	2015-16	2016-17
56.785,22	35.588,95	0,00	0,00	0,00	26.681,34

Eta honako kopuru hauek eragile eta elkarte pribatuentzako laguntzetarako kanpainaren esparruan:

2011	2012	2013	2014	2015-16	2016-17
58.807,74	7.783,35	0	0	21.350,29	9.910,4

Aipatutako kanpainak biurtekoak dira. Une honetan, 2017-2018 kanpainaren ordainketa egiten ari da; hori dela eta, momentuz, ezin izan dira kasuko kopuruak sartu. Abendu honetan, halaber, 2018-2019ko kanpainako laguntzak ematen ari dira.

Laguntzetarako kanpaina hauetan basoberritzeak, baso-lanak, biodibertsitatea eta azpiegitura txikiak sartzen dira. Basoberritzeen kasuan, dirulaguntzak eman daitezke soilik LGPan sarturik dauden espezieak erabiltzen dituztenei; espezie horietatik gehienak bertakoak dira. Nolanahi ere, nahitaezkoa da proiektu edo oroitidazki tekniko bat aurkeztea, non baso-espezieen egokitasuna segurtatzen baita.

Azkenean, aipatu beharra dago 2018ko abuztuaren 22an, eta Gobernuaren erabaki baten bitartez, baimena eman zela 2020ko ekitaldiari egoztekoak zaizkion urte anitzeko konpromisoak hartzeko —2.950.000 euro egiten dute—, 2019-2020 kanpainako toki entitateek eta eragile eta elkarte pribatuek sustatutako baso-lanetarako laguntzen deialdiak sustatzeko (04.03.05 eta 08.05.01 neurriak), zeinak sarturik baitaude 2014-2020 aldirako Nafarroako Foru Komunitateko Landa Garapeneko Programan; horrek esan nahi du aurreko kanpainan baino 650.000 euro gehiago ongen direla.

.- Nafarroako Gobernuak zer erabaki hartu du Hondakinei buruzko 200/98/EEE Esparru Zuzentaruak eta 2017-2027 urteetarako Nafarroako Hondakinen Planak berak ezartzen dituen printzipioak eta helburuak betetzea bermatzeko, “El

Culebrete” (Tutera) plantako hondakinen kudeaketari dagokionez?

1. Lehenbizi, instalazioa dela-eta kontrol- eta ikuskatze-lan bat egiten ari da, zeinak berekin baitakar, bestak beste, indarrean dagoela aipatutako araudian eta plangintzan aurreikusitako helburuen betetzea. Instalazio hori aldatzeko berriki egin diren espedienteak izapidetu dira, gai organikoaren zatia bioegonkortu gisa edo konpost gisa tratatzeko, jatorriaren arabera; hartara, lehenengo kasuan, gai organikoaren isurketaren aurreko tratamendua eginen da, edo bigarren kasuan, konpost gisako erabilerarako tratamendua. Instalazioaren aldaketa garrantzitsu hori abuztuaren 21eko 301E/2018 Ebazpenaren bidez onetsi zen. Aldaketa funtzionamenduan sartu aurretik, titularrak abian jartzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du Landa Garapeneko, Ingurumeneko Departamentuan, eta Nafarroako Gobernuak egiaztatu egingen du.

2017-2019 aldirako Tokiko Inbertsioen Planaren barruan, Erriberako Mankomunitateak aurkeztutako proiektu bat sartu da, egonkortze aerobioko planta bat egiteko, 1.423.963,55 euroko ekarpen batekin (uztailaren 12ko 504/2018 Ebazpena). Proiektu hori exekuzio-fasean dago. Une honetan, hasierako ordainketa izapidetzen ari da.

2. Gainera, Hondakinen Prebentziorako eta Ekonomia Zirkularra Sustatzeko Bulegoak, eta, zehazki, Nafarroako Hiri Hondakinen Partzuergoa egiten ari den lanaren barruan, gai organikoaren prebentzio- eta bilketa-lanetan lagun egiteko honako zeregin hauek gauzatzen ari dira:

## PREBENTZIOA

- Une hauetan, Erriberako Mankomunitatearekin lan egiten ari gara hondakinen prebentziorako eta hurbileko merkataritza sustatzeko proiektu batean. Bertatik bertara egon gara proiektu hori ikusten, eta eskaini dugu proiektua sar dadila hondakinen partzuergoak mankomunitate guztietan bultzatzen duen prebentzio programetan.

- Tuterako azokan prebentzio-jardunaldia egin da, eta tokiko eta hurbiltasuneko kontsumoko esperientziak aurkeztu dira. Ontzirik gabeko merkataritza. Jarduera horretan, oihalezko poltsa berrerabilgarriak banatu ziren azokako saltoki guztietan.

- Cascanteko ikastetxe publikoan Nafarroa osorako hezkuntza-proiektu bat aurkeztu zen, Bokatonas delakoa banatuz (ogitarteko-ontzia, ikastetxean bilgarrien erabilera gutxitzeko).

- Ikastetxe berean, hamarretakoaren orduan patioan sortutako hondakinen sailkapena egin zen.

- Tuteran jardunaldi oso bat egin zen, jarduera askorekin, prebentzio-astearen barruan. Hartan, bisita bat egin zen, Erriberako hainbat hautesirekin batera, Elikagaien Bankura, Villa Javier jantoki sozialera eta El Capacico supermerkatua, elikagaien alferrik galtzea arintzeko ahaleginaren barruan.

- Egun berean, "nikez dut botatzen" izena hartu dutenen jardunaldi bat egon zen Tuterako azokan, elikagaien zein jantzien eta bizikleten errerabilpenari buruzko tailerrekin. Jardunaldian, paperezko poltsa berrerabilgarriak banatu ziren, "Agurplástico adió" kanpainaren barruan.

- Erriberako Mankomunitatean, 35.000 paperezko poltsa banatu ziren tokiko eta hurbileko saltokietan.

- Ontziteria berrerabilgarria eraman dira Murchanteko gazteen jaietara, eta edalontzi berrerabilgarriak, berriz, Ribaforadako "La Pellejo" motorzaleen bilgunera.

- Elikagaien Bankuarekin elikagaien hondarren bilketa egin da, iraungitzeko pronto dauden elikagaiak jasotzeko bide bat irekitze aldera, haiek, gizarte zerbitzuen bitartez, ohiko banaketaren zirkuituan sartzeko. Bai Hondakinen Partzuergoa, bai mankomunitatea bera prest daude finantzaketa eta logistika bilatzeko. Arazoa edo zailtasuna, une honetan, Elikagaien Bankuko boluntarioengan dago.

## GAI ORGANIKOA

- Une honetan, 5. edukiontziaekin, gaikako bilketa egiten da Tuterako merkataritza-eremuetan: 238 tona jasotzen dira. Irailean jakinarazi zen aurrekonturik ez zegoela 2018an hasteko, eta konpromisoa hartu zuten 2019ko aurrekontuetan sartzeko; zehazki, Tuteran 5. edukiontzia bidezko bilketa egiteko.

- Prebentzio Bulegoak Queiles aldean udalerriko inauste-hondarrak konpostatzeko proiektu bat egin du, Goialdeko Queilesko, Murchanteko eta Erriberako Mankomunitateko gizarte zerbitzuekin batera. Udalak prestatutako eremu batean, inauste-hondarrak tratatu eta konpostatuko dira, herriko ostalaritzako gai organikoekin batera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2018ko abenduaren 14an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

## **Galdera, Tuterako Osasun Barrutiaren egoerari eta giza baliabideen arloko beharrezanei buruzko diagnostikoari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Osasun Barrutiaren egoerari eta giza baliabideen arloko beharrezanei buruzko diagnostikoari buruzkoa. Galdera 2018ko azaroaren 16ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-18-PES-00249), jakin nahi baitu “Tuterako Osasun Barrutian giza baliabideen diagnostiko bat egin den eta erretiroak eta laneko ez-joateak estaltzeko plan bat diseinatu den”. Honako hau da Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Tuterako Osasun Barrutian lan egiten ari da Tuterako Osasun Barrutirako Plan Estrategiko bat egiteko 2018-2022 aldirako, zeinean kasuko jarduketako sailak sartzen baitira, 2014-2020 aldirako Nafarroako Osasun Planean zehaztutakoekin bat. Estrategia bakoitza osasunaren eremu batean esku hartzeko proposamen bat da, zeina zabalduko baita kasuko ekintza-planetan; izan ere, plan horietan behar diren baliabideak jasoko dira haiek ezarri ahal izateko.

Gainera, legegintzaldi honetan, lan egiten ari da Tuterako Osasun Barrutiaren plantilla finkatzeko, behar diren lan-eskaintza publikoak onestearen bitartez eta gero lanpostuen lekualdatzerako eta oposizio lehiaketarako deialdia eginez, araudi indardunarekin bat.

Zehazki, 2018. urtean hainbat espezialitate medikotako 40 profesionalen plantilla egonkortu da, 2013ko, 2015eko eta 2016ko lan-eskaintza publikoei dagozkienak; hain zuzen ere, honako espezialitate hauetakoak: traumatologia, anestesia eta bizkortzea, digestio-aparatua, kardiologia, pediatria, erradiodiagnostikoa, ginekologia, barne-medikuntza, kirurgia orokorra, psikiatria, urologia,

anatomia patologikoa, dermatologia eta oftalmologia.

Datozen hilabeteetan errehabilitazioko espezialitate medikoari, erizainei, obstetrizia eta ginekologia arloko erizain espezialistari eta fisioterapeutei dagozkien deialdiak ebatziko dira, zeinetan lau lanpostu, 30 lanpostu, lanpostu bat eta bi lanpostu egonen baitira, hurrenez hurren, Tuterako Osasun Barrutirako.

Halaber, ebatzteke dago familiako medikuntzako deialdia, zeinean lau lanpostu baitaude Tuterako Barrutirako, bai eta gizarte laneko beste lau lanpostu ere. Bi kasu horiek 2013ko, 2014ko eta 2015eko lan-eskaintza publikoei dagozkie.

Abenduaren 20ko 116/2017 Foru Dekretuaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarako eta haren erakunde autonomoetarako 2017ko lan-eskaintza publikoa onetsi zen, zeina 2016ko ordezte-tasari baitagokio, Administrazio Erroan, Osasun Departamentuan eta unibertsitatez kanpoko irakasleen arloan. Lan-eskaintza publiko horrekin, digestio-aparatua, dermatologia, hematologia, nefrologia, otorrinolaringologia, erreumatologia eta ginekologia eta obstetriziako espezialitate medikoetako 11 lanpostu finkatuko dira, zeinak gauzatu gabe geratu baitziren aurreko lan-eskaintza publikoan, bai eta laborategiko teknikari espezialistaren lanpostu bat, erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikarien 13 lanpostu eta 11 zeladore lanpostu ere; horiek guztiak Tuterako Osasun Barrutirako.

Halaber, uztailaren 18ko 52/2018 Foru Dekretuaren bitartez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun-langileentzako lan-eskaintza publiko bat onetsi da. Eskaintza hori ekainaren 27ko 3/2017 Legean aurreikusitako egonkortze-tasari dagokio, eta 23 lanpostu huts hartzen ditu: hainbat espezialitate medikotakoak, oinarriko osasun laguntzarako familiako medikuntzako 15 lanpostu, erizainen bederatzi lanpostu eta Tuterako Osasun Barrutirako erradiodiagnostikoko teknikari espezialistaren lanpostu bat.

2018ko azaroaren 20an, 2018. urteari dago-kion lan-eskaintza publikoa aurkeztu zen osasuneko mahai sektorialean; hartan, beste 16 lanpostu jaso ziren, Tuterako Osasun Barrutiko osasun estamentuetakoak: familiako medikuntzako lanpostu bat eta 15 erizain lanpostu.

Uztailaren 18ko 53/2018 Foru Dekretuaren bidez, lan-eskaintza publiko bat onetsi zen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen esparrurako, zeina ekainaren 27ko 3/2017 Legean aurreikusitako tasari baitagokio; hartan, administrari laguntzaileen 12 lanpostu huts eta zerbitzu anitzetako langileen 2 lanpostu huts jasotzen dira, guztiak ere Tuterako Osasun Barrutirako.

Gaur den egunean, eta datozen bost urteetarako, hainbat lanbide-kategoriatako 103 lanpostutan erretiroak gerta daitezkeela aurreikusi dugu, erantsitako taulan zehaztu bezala; haien betetzea hurrengo lan-eskaintza publikoetan sartu beharko litzateke, dagokion zenbatekoan, ordezkatzetasaren kontzeptuan.

Erretiro kopurua	Erretiro urtea					Guztira, oro har
	2019	2020	2021	2022	2023	
<b>Kategoriak</b>						
ADMINISTRARIA					1	1
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2		2		3	7
ZAINZAILEA (D MAILA)		1	2	1	3	7
ERIZAINA		3	2	7	4	16
B.S.E./LAGUNTZAILEA	2	2	2	2	1	9
FISIOTERAPEUTA			1			1
HARRERA ETA ARTXIBO BURUA					1	1
LAGUNTZA ATALEKO BURUA-BFE/ALBOKOA		1	1			2
REINA SOFÍA OSPITALEKO ZERBITZU OROKORRETAKO BURUA					1	1
ERIZAINZA UNITATEKO BURUA-II		1				1
UNITATEKO BURUA-IIC				1		1
OOLT-KO MEDIKUA	3		1	4	3	11
LZA-KO MEDIKUA	1		1	1	1	4
ODONTOLOGOA		1				1
OFIZIAL TELEFONISTA					1	1
OOLT-KO PEDIATRA				2	1	3
EZLT	8	1	7	6	10	32
OOLTTa					1	1
LTE	1					1
TELEFONISTA			1			1
GIZARTE LANGILEA			1			1
<b>Guztira, oro har</b>	<b>17</b>	<b>10</b>	<b>21</b>	<b>24</b>	<b>31</b>	<b>103</b>

Ez-joateen eta kontratazioen betetzeari dagokionez, Osasuneko kontseilariaren martxoaren 23ko 347E/2017 Foru Aginduan xedatutako aplikatu beharra dago; agindu horren bidez onesten dira aldi baterako kontratatzeke izangaien zerrendak kudeatzeko arauak, Osasun Departamentuari atxikitako erakunde autonomoetako zentro eta establezimenduetarako. Arau horiek osasuneko mahai sektorialean negoziatu eta onetsi ziren, horretarako sortutako taldeak egindako azterlanaren ondoren.

Halaber, osasun arloko eskumenen esparruan eta profesionalak fidelizatze aldera, lanean ari gara hainbat jarduketa-ildo garatu eta hobetzeko, eta espero izatekoa da horiek berekin ekartzea bai profesionalen lan-baldintzen hobekuntza bat, bai lanbide-sustapeneko eta garapeneko aukerak indartzea ere. Honako hauek daude horien artean: espazioak eta azpiegiturak egokitzea; profesiona-

lei harrera egitea; lan-arriskuen prebentzioa eta osasunaren sustapena; barne-komunikazioa eta parte-hartzea hobetzea; prestakuntza jarraitua eta ikerketa; espezialisten prestakuntza, behin eskatu diren irakaskuntza-dispositibo elkartuak onetsi ondoren; teknologia ordezte eta berritzea; zerbitzu-zorroa hobetzea; laguntzarako unitate funtzional berriak sortzea, esate baterako digestio-aparatuaren arloan eta kardiologian; eta lan-ordutegia malgutzeko, azken hau, betiere, aplikatzeko den araudiak eta arretaren beharriaz- nek horretarako bidea ematen dutenean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko abenduaren 10ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## **Galdera, Tuterako larrialdietako ohiko zerbitzuko medikuntzako nahiz erizaintzako taldea indartzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako larrialdietako ohiko zerbitzuko medikuntzako nahiz erizaintzako taldea indartzeari buruzkoa. Galdera 2018ko azaroaren 16ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-18-PES-00250), informazioa nahi baitu "Tuterako larrialdietako ohiko zerbitzuko medikuntzako nahiz erizaintzako taldea indartzeari buruz eta Tuterako Mendebaldeko osasun etxeko larrialdietako zerbitzu normala ordezkatzeari dagokionez erabaki bat hartzeari buruz". Honako hau da Nafarroako

Governuko Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Tuterako Osasun Barrutiak plan programatu bat badauka Tuterako Ekialdeko osasun etxean kokatutako Larrialdietako Zerbitzu Arrunta gertakari berezietarako indartzeari begira.

Horri dagokionez, zerbitzu hori osatzen duten profesionalen errefortzuak jartzen dira, batez ere, laguntza dela-eta presio handiena dagoen garaientan: Tuterako jaiak eta Eguberriak.

2.- Tuterako Osasun Barrutian, aurrez zehaztu den bezala, Larrialdietako Zerbitzu Arrunta Tuterako Ekialdeko osasun etxean kokatuta dago; hori dela eta, Tuterako Mendebaldeko osasun etxean ez dago larrialdietako zerbitzu arruntik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko abenduaren 10ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Batzorde Iraunkorraren osaketa.**

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkor-  
rarak, 2019ko apirilaren 8an egindako bilkuran,  
erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Talde parlamentarioek eta foru parlamentari-  
en elkarteek idazkiak aurkeztu dituzte Legebil-  
tzarreko Batzorde Iraunkorreko kide titular eta  
ordezkoak izendatzeko. Idazki horiek ikusita eta  
Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 67.  
artikuluarekin bat, hona ERABAKIA:

**1.** Legebiltzarreko Batzorde Iraunkorra era-  
tzea. Batzorde Iraunkorra osatuko dute Legebil-  
tzarreko lehendakariak –Batzorde Iraunkorreko  
lehendakari gisa arituko dena–, Parlamentuko  
Mahaiko kideek eta Eledunen Batzarreko kideek  
eta haien ordezkoez. Hona hemen:

Parlamentuko lehendakari Ainhoa Aznárez  
Igarza andrea.

Parlamentuko lehen lehendakariorde Unai  
Hualde Iglesias jauna.

Parlamentuko bigarren lehendakariorde Alber-  
to Catalán Higuera jauna

Parlamentuko lehen idazkari Maiorga Ramírez  
Erro jauna.

Parlamentuko bigarren idazkari Maribel García  
Malo andrea.

Unión del Pueblo Navarro talde parlamen-  
tarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea  
jauna. Ordezkoak: Carlos García Adanero jauna  
eta Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jauna.

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun  
Koldo Martínez Urionabarrenetxea jauna. Ordez-  
koak: Virginia Alemán Arrastio andrea eta Isabel  
Aramburu Bergua andrea.

EH-Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren  
eledun Adolfo Araiz Flamarique jauna. Ordezko-  
ak: Aranzazu Izurdiaga Osinaga andrea eta Miren  
Aranoa Astigarraga andrea.

Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parla-  
mentarioaren eledun Carlos Couso Chamarro  
jauna. Ordezkoak: Rubén Velasco Fraile jauna  
eta Laura Lucía Pérez Ruano andrea.

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamen-  
tarioaren eledun María Victoria Chivite Navascués  
andrea. Ordezkoak: María Inmaculada Jurío  
Macaya andrea, Carlos Gimeno Gurpegui jauna  
eta Ainhoa Unzu Gárate andrea.

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamen-  
tariaren eledun Ana María Beltrán Villalba andrea.  
Ordezkoa: Javier García Jiménez jauna.

Izquierda-Ezkerra foru parlamentariaren elkar-  
teko eledun José Miguel Nuin Moreno jauna. Ordez-  
koa: María Luisa de Simón Caballero andrea.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko  
Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

